

ZORIGAIZTOKO EGUNA

JOSTIRUDIA EGINTZA BATIAN

BARRIOLA TA AIZPURUA TAR JUAN ABELINO'K IDATZIA TA

OLAIZOLA 'TAR JOSEBA 'REN
ERESIYA

ZORIGAIZTOKO EGUNA

Jostirudia egintza batian.

Iruditegian agertuko da Donostiko kaya. Danen gertaera da erdiko *muturrian*, zubitxoaren zabalerua dagoen lekuan.

Egilleraren eskuitara da portalieta bidea. Eskuitik zubi txikira. Atzian itxasora jeixteko eskallera.

LENBIZIKO IRUDIA

Tomax, Roke ta jende pillia.

(burtiña altxatzen danian ibilliko da iruditegian jente aundiya batera ta bestera)

(Tomas, Roke ta kanpotarrak eskuitik)

(ERESIA)

GUZIYAK (coro) Ederra zera zu Donosti
 ;Ederra ta zoragarri!
 Alboan, itxaso ta mendi
 soro ta zumardi;
 bastarrak politak eta txukun
 dana lorategui;
 iñola zeru'tik jetxitako
 pitxi bat iduri.
 Itxasoa marmari
 beti, abeslari:
 aldiz, aserretsuta,
 aldiz, legun ezti...
 txori egal luziak
 uretan jostari,
 mun emanaz alaxken
 apartxuriari...
 zenbait itxas-ontzi...
 arrantzaliak datoz (datoz)
 kayera bizkorki.

Ederra zera Donostia,

urre-zillarrez jantzia.

Goazen, ba, goazen, itxaso'ra
Santa Klara ta Kontxa'ra.
Pasai'ra...

(IZKETAN)

TOMAX (Ojuka jendiari) ¡Onera! ¡onera! ¿Nork jua naidu Pasai'ra?
¡Matxitakon'n Pasai'ra! ¡Pasaira! ¡Pasaira!...? ¡Badijuala
Pasaira! ¡Beriala!... (Batsuei eskallera erakutzi) Emendik.
NESKATXA BETK ¿Santa Klara'ra al dijuu?
TOMAX Ez, Pasai'ra. (Baporera ojuka) ¿Naikoak al dituk?... Ondo zio.
(Soka askatuz ta botiaz) To, txikota.
ROKE Ederki zia.
TOMAX Bai. Errepa akiyok aurrian dijoazen bi emakume oyei. Tarta
gañean jartzen diran panpiñak ziruditek.
ROKE Etorri diranian egon nauk begira. ¡Eztitekan lurrik ere ikutzen!
TOMAX Zer jate ote dute orren ariñ ibiltzeko?
ROKE Etezkiak nik... euliyak edo txoriyak edo...
TOMAX Txoriyak ez; buru gañian jartzen dizkitek eta...
ROKE Orduan euliyak. ¡To! Nere emeztaria ere, ala janarazi biarko
zizkat... Gaur txalupara jetxi zaidak eta iru pañel puzkatu
zizkidat... Eta ori, anka bakarrian salto egin dubelarik.
TOMAX Obe dek, euliyak baño, eper bat eman.
ROKE Gaitz egiten zio. (Bapore txikiya igarotzen da)
TOMAX ¿Maiz jaten alditu? (Vaporía pasa ta txistu zorrotza)
ROKE Nola nai dek gaitz egiten dabiyo
TOMAX ¿Patrikari?
ROKE ¿Nun uste ukan ba? ¿Agiñian?
TOMAX ¿Ez alde gaur, txipiroi'tara jua biar?
ROKE Ez; arratzalde guztirako artuba niok. Jauntxo aberatz baten alaba
ta beste galai gazte baten zai niok.
TOMAX ¿Aterako aiz?
ROKE Zerbait biar diagu guk ere ¿Bezela beti egonian eta alperkeriyan
ez ba gaituk gu bizi? (Eskuitik eskerrera bapore txikiya
igarotzen da. Bapore txistu luzia) Mutil; gaur ondo niok, baporía
Pasai'ra jua zaitelako; bañian bestela, erotzen nauk jende billa.
(Juaten da eskuitik)

BIGARREN IRUDIA

On Juan eta Andre Kiteri, gero Roke

(On Juan eta Andre Kiteri eskuitik sartzen dira)

ANDRE KITERI (Izerditan, arnasez ezin beterik) ¡Ai, ai, au da ito larria!
ON JUAN ¡Orrenbestekua emakumia!
ANDRE KITERI ¡Orrenbeste, orrenbeste! Ikusten ez al nazu iya ituan nagola.

ON JUAN Egun batekoen gatik...

ANDRE KITERI Egun bat... udara guztiyan onela nabilkizute: Igeldo'ra, Pasai'ra, Lasarte'ra; egunero Kontxa'ra, Pigal'era... ¡Gelditzen al naiz ba!...

ON JUAN Alaba baten gatik, ori ta geyago egin liteke.

ANDRE KITERI ¿Geyago? Ill orduan ta... tente jarri sonbrilla ta guzti.

ON JUAN Ba... ba...

ANDRE KITERI Baba ez, bañan eguardiko tomatia dana arpegira igo zait. ¡Sutan nago ta! Ez da gutxitako gañera ¿garaya dala uste aldezu, bero onekin, itolarri onetan, txalupan juateko?

ON JUAN Zer nai dezu bada: Pantxo ta gure Lusita'ri gogoratu zayote arrantzara juatia ta mutilla pozik irrukitzia komeni zaigu berriz.

ANDRE KITERI Neskak arrapatzen ez badu, zer uste dezu ¿guk obeto eutziko deyogula?

ON JUAN Gure aldetik ere, alegiñak egin biar ditugu.

ANDRE KITERI Ortarako nere alaba naikua da. ¡Amaren alaba ez da ba!

ON JUAN Ta ama alabak biyak ¡Ui! ¡Ta gañera txalupan!

ANDRE KITERI ¡Ez! ¡ez! ¡Ori ez! Onera etortze utzarekin iya ituan nago ta, itxaso erdiyan eguzki galgatan nai al nazu? ¿Alargundu nai aldezu?

ON JUAN Zure ateraldiya. ¿Zer esando dute bakarrik uzten baditugu bi gaztiak?

ANDRE KITERI Berak beñepin ezerrez. Gu gabe nayago dute ta... ¿Ta beste zeñek, uste dezu, ikusiko ditula orain? Gañera or darama neskak bere laguntzallea, bere Mis...

ON JUAN Bai, Mis, edo makill au aldamenian ekartzia, berdin da

ANDRE KITERI Gure Mis ondo tajuzkua da.

ON JUAN Eskoba kirtentzat bat

ANDRE KITERI Etzenduen ori esaten, nere ondoren ibiltzen ziñanian Mis ura onen antzekua zan bada.

ON JUAN Orrengatik bada.

ANDRE KITERI Pozik asko iges egiten aren aldamenetik

ON JUAN Orrengatik bada?

ANDRE KITERI ¿Ogei urteen buruban orain etorri al zazi damuba?

ON JUAN Damuba... damuba...

ANDRE KITERI ¿Zer bada? ¿Zer uste dezu dala gure alaba?

ON JUAN Utzi ditzagun berriketak, ta zuaz txalupara. Or dago zai, Roke.

ANDRE KITERI Zuaz zu, ni etxeratuko naiz bakarrik.

ON JUAN Mariatu egiten naizela badakizu. Ni etorri naiz zubek txalupan jartzera.

ANDRE KITERI Ni ez nazu jarriko besoetan artuta ere.

ON JUAN ¡A zer marama zu besoetan ibiltzeko!

ANDRE KITERI Marama onek bakarrik ibiltzen badaki... Gero arte. (*Eskui aldera pixkabat juanaz*)

ON JUAN Zaude, emakumia (*Ezker aldera deituaz*) ¡¡Roke!!

ANDRE KITERI Ariyo... (*Eskui aldian gelditzen da*)

ON JUAN Kiteri, banijuala (*Roke ezkerretik sartuaz*)

ROKE Arratsalde on.

ON JUAN Bai zuri ere, Roke. Badatoz goizian esandako gaztiak: gure alaba, bere senargayarekin; eta kontu aundiya ibilli.

ROKE Bai jauna, bai.
ON JUAN Ezer gertatzen bazaie, beriala etxeratu.
ROKE Nere kontu.
ON JUAN Meriendatxo bat ere badaramate ta jango dezute alkarrekin...
ROKE Eskarrikasko...
ANDRE KITERI (*Eskuitara begiratuaz*) Ara, ara, badator... begira zayozu nere panpoxari.
ON JUAN Gure panpoxari.
ANDRE KITERI ¿Guria? ¡Amaren gatik ez balu!... ¡Txoratu biardu mutilla!... ¡Begira!... (*Deituaz*) ¡Luisita! ¡Luisitatxo!... (*On Juan eta A. Kiteri juaten dira eskuitik*)
ROKE Ara nun datozen biyak. Mari-panpalonak dirudite. Oyek ikusita arrayak itzuli ere egingo dute. Oyek arrapatu, ez dute ezer arrapatuko baña, nik beintzat, oyen merienda arrapatuko det. Berak baño “sustantzi” obekoa izango da ta. Bai noski. Ba, ba, atrakatu dezatan txalupa. (*Ezkerretik soka bat ekarri ta gero eskalletara bera jexten da*) (*Ateratzean doñua*) (*Pantxo ta Luisita eskuiko atzetik, arrantzarako tresnak dituztela*)

IRUGARREN IRUDIA

Pancho ta Luisita, Roke, Mis eta Neskamia

(*Eresia asten danian asaltzen dira “saltoka” bi gazte, eskuan arrantzarako aparejo polit bana dakartela. Pantxo ta Luisita dira, udarako erara jantziyak, biyak txuriz. Ondoren etorriko da Mis. Geroxiago azalduko da neskamia otar batekin. Mis’ek deituko dio Rokeri, igoko da au eskalletan gora, emango diote otarra, ta Roke berearekin, jextiko da berriro. Orduan juango da Neskamia etorri bezela, eskuitik.*)

(*ERESIA*) (*berdiñ*)

BIYAK Pantxo, dontxella, txilibitu ta krabak
arraiz bizkar pintarratuak, arrai politak
esker-eskui tuk-tuk, gora arrai biziak
gaurko gure arrantzarekin, ja-jai! A zer apariya!
(*Mis eskuitik*)
LUISITA Pantxo!
PANTXO Luisita
BIYAK Tuk eta gora arrai politak
LUISITA Pantxo
PANTXO Luisita
BIYAK Tuk-tuk, arrai politak
(*Neskamia eskuitik meriendarekin, deitzen dio Roke’ri xextua emanaz*)
LUISITA Tuk eta gora, tuk eta gora
PANTXO Arrai politak ugari
LUISITA Arrai politak, arrai politak
(*Roke eskalletatik Mis’ek deitzian –betik xextuen billa-*)

PANTXO Egin arte pilla bi
 LUISITA Ugari
 PANTXO Ugari
 BIYAK Ugari
 LUISITA Tuk-tuk
 PANTXO Tuk-tuk
 LUISITA Tuk-tuk
 PANTXO Tuk-tuk
 BIYAK Tuk-tuk
 Txilibitu ta krabak, arrai politak
 esker-eskui, tuk-tuk
 esker-eskui, tuk-tuk
 arrai politak, ugari

PANTXO Luisita
 LUISITA Pantxo
 PANTXO Luisita
 LUISITA Pantxo
 BIYAK Pantxo, dontxella, txilibitu ta krabak
 arrai bizkar pintarratuak, arrai politak
 esker-eskui, tuk-tuk, gora arrai biziyak
 gaurko gure arrantzarekin, ¡A zer apariya!

Tuk eta gora, tuk, tuk, tuk
 Tuk eta gora, tuk, tuk, tuk
 Tuk-tuk, tuk-tuk, tuk-tuk
 Tuk eta gora, tuk, tuk, tuk
 Tuk-tuk, tuk-tuk.

(IZKETA)

PANTXO Aspaldiyan nuben asmoa!
 LUISITA ¡Bai nik ere! Pantxo, pozez zoratzen nago
 PANTXO Kosta zaigu ba baimena ateratzia, ¡ta gaur dagon itxasoarekin!
 Ez dakit nik zeren bildur ziran.

LUISITA Ez dakit itxasuan mariatuko naizen, bañan nere amaren jardunak
 mariatu naute.

PANTXO Gurasuen gauzak. Uste dute beti aur txikiak gerala ta beren
 albotik jua biar ez degula.

LUISITA Gaur ez daramagu iñor ¡bakarrik gaituzu!
 PANTXO Obe! Au poza! Emango diskizut lau muxu
 LUISITA Ta nik bi masalleko
 PANTXO Ta nik iru koxk
 LUISITA ¡Ui! Zaude ixilik goseti
 PANTXO Zuregatik panpoxa
 LUISITA ¡Itxusi!
 PANTXO ¡Moñoña! (*Iya muxu emanaz, Mis'ek estula egiten du, ta
 urrutiratzen dira*)

MIS ¡Ejem! ¡ejem!
 PANTXO Guazen. Iruditzen zait arrai guztiyak gure zai daudela.
 LUISITA ¡A zer arrantza! Arrapatuko ditut gutxienez, bi dozena donzella

PANTXO Ta beste ainbeste kraba
 LUISITA Ta lupi
 PANTXO Ta txipiroi (*Lenago bezela inguratuaz. Mis'ek berriro estula egiten du ta urrutiratzen dira*)
 MIS ¡Ejem! ¡ejem!
 LUISITA Guazen Pantxo
 PANTXO Guazen Luisita (*Eskallera bera juaten dira irurak*)
 (*Erroman eskalletatik, Kastor'ek soka bat botatzen dio*)

LAUGARREN IRUDIA

Treñero bateko gizonak, patroya, Koxkor, Pantaleon, Erroman, Loentxo, Sopas eta Koxkor

(*Kai gañean agertuko da aurreneko Erroman, artuko du botatzen dioten soka ta amarratuko du ortarako dauden burnizko ertzetan*)

ERROMAN Bota txikota
 KASTOR (*Barrendik*) Artzak, amarrak ondo (*botatzen du txikota*)
 (*Etorriko dira eskalletan gora, banaka, gizon danak bakoitzak bere otartxua besopian dubela*) (*Koxkor, Pantaleon, Loentxo, Sopas eta Kastor, eskalletatik.*)
 KOXKOR ¡Gaur, kale!
 PANTALEON Bai mutil. Egun guztiyan ibilli gaituk, eta ¿zer arrapatzeko?
 KOXKOR Kolayo batzuek, dozen-erdien bat neska zar, eta legatz koxkorren bat.
 PANTALEON Egualdi au itxasorako baño, emaztiarekin pasiatzeko obia zeok
 KOXKOR Bai ua neriaren gana ¡Moko pollita irukiko dik!
 PANTALEON Orain ere asarre alzerate?
 KOXKOR ¡Beti orrela ziok! Orainguan etziot ba nik azar-biderik eman. Itz bat eztiat izan, eta iru egunian sekulako muturrakin ziok.
 PANTALEON ¿Zergatik?
 KOXKOR Iru egunetan etxeratu ez naizelako
 PANTALEON ¡Au aparejua! Juan baitzan txintxo-txintxo etxera, ez ukan orrela egongo.
 KOXKOR Baita. Orduan ere zer edo zer izango zikan. Berriketan ari ezpada ondo etziok ¡Nola ote dago orain!
 PANTALEON Aixkiratuko ukan.
 KOXKOR Bart, etzekiat jakindu zuben oker xamar netorrela, ta “pentsatu” zikan gaizki ibilliko nitzala bostgarren bizitzaraño igotzen; bañan Sopas'ekin eskaill buruban berriketan ari nitzala bota zizkiakan goitikan otarra zirakin, ta ondoren bi eskalaproyak, batek jo izan baldin gaur alargun ziokan.
 (*Patroya eskalletatik*)
 PANTALEON Obe izango diat mutil-zar egon
 KOXKOR Nik ere ori esaten nikan, eta erori nindukan; bañan jarri egiten dek. Berriketan asten danian jira;... ixiltzen ez bada, ospa;... eta bueltako pasatzen zayok. (*Izketa au egin bitartian igoko dute txalupatik, ortan ibiltzen dituztenetako xexto bat. Aterako dute*)

arraiz guztiya ta jarriko dituzte, gizonak diraden aña mordoska, “partilla” egiteko oi dan bezela. Danak egongo dira inguruan, beren otartxuak eskuan edo lurrian dituztela)

PATROYA Treñerua garbitzian, zabaldu pixka bat
 ERROMAN Bai (*Patroya juango da eskui aldetik etxera*)
 KASTOR Erroman, egintzak deya. (*Erroman jarriko da ezkerretara iruditegiko aurrian, denari atzia emanaz eta ontan dagola erantzungo du zeñentzat esanaz*) ¿Au?

ERROMAN Leontxo’ntzat
 KASTOR ¿Au?
 ERROMAN Sopas’entzat
 KASTOR ¿Au?
 ERROMAN Neretzat
 KASTOR ¿Au?
 ERROMAN Patroya’rentzat
 KASTOR ¿Au?
 ERROMAN Pantaleon’entzat
 KASTOR ¿Au?
 ERROMAN Iretzat
 KASTOR ¿Au?
 ERROMAN Koxkor’entzat... ¿Besterik bai al da?
 KASTOR Ez. Ori dek iria... ta ori patroyarena. (*Bakoitzak artzen du bere partia, Erroman’ek gañeaz patroyarena ta juaten dira*)

PANTALEON ¿Zer dek ik, Koxkor?
 KOXKOR Nai ez detala ere, nere “pamiliya”
 PANTALEON ¿Zer pamili?
 KOXKOR Esan diat ba, neonena. ¿Traman bat, bi mielkakin. Andria bi alaba’kin... ¿Eta ik?

PANTALEON Bi neska zar
 KOXKOR Kontu egin zak bestela arrapatuko aute
 PANTALEON Etziok bildurrik. Sudur luzia diat.
 KOXKOR ¿Ainbat okerro! Obeto trabatuko aute ¿Mutil! Ezkon-gayak luzia ditek amua

PANTALEON ¿Eta ezkonduak?
 KOXKOR Azkazalak (*Juaten dira eskuitatik otarrak besopian dituztela*)
 (*On Pepito eskuiko atzetik – antzestokian iñor ez, arrantzarako tresnarekin, eskupian silla bat, xextua, ta abar*)

BOSTGARREN IRUDIA

On Pepito (Pepitotxo)

(Au da gizaseme berrogeitamar urtetik gora dituben bat, ondo jantziya, buruban txapel lastozko bat. Ekarriko du eskuan alkitxo bat, iriki ta itxi egiten dana, otar txiki polit bat eta arrantzako kañabela. Sartuko da poliki-poliki, pentsamentuan baletorke bezela)

ON PEPITO Bi pantxo?... ez... ¿Bi paneka?... ez ta... ¿Bi txilibito koxkor?... eztakit... bañan, gaur, zerbait oso ederra arrapatuta eramango diyot nere biotzeko Klotildetxo’ri. Etxetik irtetzeakuan, nere

emaztetxuak esan dit: (*Andrien antzera*) “Pepitotxo, ez gero ezer gabe etorri. Badakizu, zuk ekartzen dizkidazun gauzak ematen dirala neri biziya”. Eta, ala da. Arrapatu liteken arrayik onena erosten du, ta mokadutxo bat ere ezin jan du. Bañan ¿arrapatzen det nik zerbait?... Jakiña da... ezurretarañoko guztiya “txupatzen” du. Luzaro egon naiz ni pensatzen, zerk egiten ote diyon nere arrayak obiak arkitzia... Ta azkenik asmatu det. Arrantzaliak jartzen dituzte amuetan edozein gauza zikiñ... (*Nazkarekin*) Txitxariak eta sardin zar puskak eta... arrai usteldutakuak eta beste orrelako gauza txarrak. Eta ¿zer gertatzen da? Ez dutela ura jaten zernai erakuak izanagatik, arrai bastuak baizik; eta orregatik dira jan gusto txarrekuak. Zergatik ¿alperrik da! Arrayetan ere, gure artian bezela dira; zatarrak, “bastuak” geyenak; eta piñak banaka batzuek... ni ta Klotildetxo bezela. ¿Jarriko balituzteke amuetan nik bezelako gauza goxuak!; obian arrapatuko lituzteke, bai; nik gaur arratsaldian bezela ¿Ez dakizutela zer daramatan amurako?... ¿Kanariyuen ixtarrak!... eta ¿apastarako? kremazko pastelak, andre Graxi’en nian erosiya. ¿Eta onela, nola ez arrapatu!... ¿Ui! Nik uste det laguntzalleren bat biarko detala gaur... asi naiyen beñepein bakarrik eta, gero, ikusiko det... (*Esker aldian uretara begira*) ¿Emen jarriko ote naiz?... Ez... pitin bat aruntxaxiago... emen... (*Irikitzen du alkiya ta ezeritzen da erdiyan*) Apatx!!

SEIGARREN IRUDIA

On Pepito, Roke, Pantxo, Luisita eta Mis

(*Bi gaztiak etorriko dira itxura oso txarrian eta Pantxo dana bustiya*)

(*Barrenen*)

ROKE	Egon pixka bat... kontu erori ta berriz buzti.
MIS	Ni aurrena aterako naiz (<i>eskalletatik, aurrena Mis Luisita’rekin, gero Roke Pantxo’rekin</i>)
MIS	(<i>Agertzen da ta igoko da Luisita’ri eskua emanaz</i>) Igo orain.
LUISITA	¿Ai ama!... ¿Au itxura! ¿Seguru al gaude emen?
MIS	Bai; legorra arrapatu degu
ROKE	Guazen nere etxera, an aldatuko zera
PANTXO	Eta... ¿ez al naiz ito?
ROKE	Pantxo’rik ez da uretan itotzen
LUISITA	(<i>Pantxo’ri begiratuaz oso kupiturik</i>) ¿Pantxo!!
PANTXO	(<i>Luisita’ri oso kupitu begiratuaz</i>) ¿Luisita!!... (<i>Roke’ri</i>) Zu, Roke ¿ez al naiz ilko?
ROKE	Ez gizona, ori ez da ezer.
LUISITA	Ekarriko ote dezu baezpada ere medikua... edo apaiza?
ROKE	Zertarako?... Ez du iñor biar; nere andriak beriala moldatuko du
PANTXO	¡¡¡Uuuuuuuuummmmm!!!! (<i>Gonbitatu nai balu bezela</i>)
LUISITA	Apaiza! ¿Apaiza aguro!

ON PEPITO ¿Zer dezute? ¿zer dezute?... ¡Oi! Pantxito ta Luisita... ¿Zer gertatu zaizute?

LUISITA Uretara erori da

ON PEPITO ¡Oi! ¡Pantxito gaxua ta, ¿miñik artu al dezu?

PANTXO Ez jauna, ez

ON PEPITO ¡Oi! ¡Ta dana bustiya zaude! ¡O! ¡O!

ROKE Ez, uretan legortu egingo dek)

ON PEPITO ¿Nora zuazte orain?

ROKE Nere etxera. An aldatuko da.

ON PEPITO Eraman zazu azkar, azkar.

ROKE Guazen

MIS (*Luisita'ri*) Guazen

ON PEPITO ¡Orain arte granoik ez!... ¿Zerk egite ote du?... ¡A!... goiz xamar da, ta oraindik arrayak ez dute jateko gogorik irukiko. Saya nayan berrirotik.

ZAZPIGARREN IRUDIA

On Pepito ta Koxkor

(*Koxkor eskuiko aurretik*)

KOSXKOR (*Bi eskuak galtzen patrikan ditubela*) ¿Nora juaan biar det nik orain? Ez arditik... ez zigarroik eta ez ezer! (*aozabalduez*) ¡Au urdalleko trixtura! ¡Sartuko liake emen makiñabat ollasko! ¿Ollaskuak?... ¡Ori ametsa! ¡Sardin zar bat eta baso “pare” bat sagardoentzat baneuka. Alegiñak egin ditut ba andriari zerbait ateratzeko, bañan ¡alperrik! ¡Goxua gelditu da!

Etxera juaan naizenean, an zeon sukalde bazterrian gaba baño beltzagoko kopetakin. Beste egunetan bezela alde egingo nuben ixilik, gauzak utzi ta, bañan txanpon batzubek nai nituben da, exeri naiz bere inguruan, noletan txurikatu sumatuaz.

Andria'ri beriala gogoratu zayo zer nebillen, eta ala diyo “¿gaur ez aldezu parrandara juaan biar?”

(*Roke pardelarekin eskuiko aurretik. Utziko du pardela lurrian, jexten da eskalletan barrena eta igoko du meriendako xestu bat*)

KOXXKOR Dirua ematen ba didazu, bai. ¡Esan bayot esan diyot! ¡Polita jarri da! Bururatu zaizkan zatarkeri guztiyak esan dizkit. Ta, nik, zenbait eta ixillago itz egiteko esaten niyon; orduanta marmarrarizo aundiaguak ateratzen zituben.

Azkenik erneatu nau, artu det xextuan neukan tramana, tira diyot arpegira, ta sartu diyot aboko zuluan! ¡Ain zabaldua zeukan (*Sartzen da Roke beso aspiyan pardel bat dubela; uzten du kai ertzian eta jexten da txalupara. Artzen du andik, len meriendakin ekarri duten xextua ta igoko da Koxkor'ek izketa bukatzerako*) (*Berriz ao zabalduaz*) (*Roke sextukin eskalletatik*) Eta orain nora nua ni? Xenpelar'enian lagun zarren bat topatuko al det, pixka bat txurruptzeko

ZORTZIGARREN IRUDIA
Koxkor eta Roke, atzian beti On Pepito

(Roke oso trixte, beso batian merienda'ren sextua, ta bestian Pantxo'ren jantziyakin egindako pardela)

KOXXOR ¿Zer da Roke?
ROKE Zertzeta, burduntzin erreta
KOXXOR ¿Neskame sartu al aiz?
ROKE Neskame ez, aurtzai
KOXXOR Mantal txuriya “palta” dek
ROKE Beste guztiya emen zekat ba, txuriz jantzi nai ba dek ere
(*Erakutziyaz pardela*)
KOXXOR ¡Bustiyak zioztik! ¿Aurak pixa egin al dik?
ROKE Pixa ez... utzi nazak pakian, asarre niok eta
KOXXOR Ni ere bai, andria'ren gatik
ROKE (*Indarrarekin*) Ni, umien gatik
KOXXOR Eta ¿pamiliko gauzen gatik jartzen al aiz ola?
ROKE Ez dituk nere pamilikuak
KOXXOR Mutil, zer dekan, garbi esan ezak.
ROKE Lentxiago atera nauk txalupan bi gazterekin. Uxuak baño poz
aundiyagua zeukaten arrantzara juateko, ta zalapartaka zebiltzan
txalupan. Kayetik atera geraneako, asi dituk txuritzen, eta
arrantzako lekura jua geraneako “mariatu” itukan biyak.
KOXXOR Geyenai gertatzen zayotena
ROKE Nik ez nikan etorri nai eraman duten “merienda” jan gabe, ta
esan ziyuatet pasako zaiela. ¡Bañan alperrik! Pantxo izenekua
jarri dek apasta dariola, txalupatik erdi zintzilik; eta balantz
batian an ziak buruz itxasora.
KOXXOR ¿Itxasora?
ROKE Bai mutil. Nola baitere, atera diat, eta or ekarri dizkiat biyak
nere etxera.
KOXXOR ¡Gizarajuak!
ROKE Andriak eman zizkiak aldatzeko nere jantzi zar batzuek, eta
emen zaramazkit bustiyak bere etxera, ordañak ekartzeko, eta...
merienda ere bai.
KOXXOR ¿Merienda ere bai?
ROKE Bai
KOXXOR Ekatzak, nik eramango diat, i nekatu gabe biyekin
ROKE Ez nauk irekin piyatzan. Bidian or dagoen ollaskua garbitzeko
KOXXOR ¡Ollaskua! To, oraintxe niokan pentsatzen, nere “tripan” zenbat
sartu ote liaken... eta ¿ikusi al dek nolakua dan?
ROKE Ez ta nai ere; ¿gose geyagokin gelditzeko?
KOXXOR Ez tiat nai i gosetzia. Nik bakarrik begiratuko zioat.
ROKE (*Juan nayian, Kosko'ek elduko dio sestotik*) Uztak, utzi zak
pakian
KOXXOR Mutil, ikustia ere galazi egin biar al dek. “Erakuszak gizona.

ROKE Errepazak ba, nik ez tiat beidatu nai. (*Luzatzen diyo sextua, bañan bera beti beste aldera begira dagoela*)

KOXXOR ¿Zer da au? ¡Ollaskua! (*Artzen du eskuan*) Ametsetan onelako batekin nebillekan

ROKE Ua, ba, ametsetakuen billa

KOXXOR Ollaskua ezik, onek ollua zirudik ¿Zer ote da? Ollua? Ollanda?... Ollaskua?... I, ezagutzen aldituk ik. Beid'akiyok

ROKE Ez nazakela zurikatu ¡Utzi nazak pakian!

KOXXOR ¡Au aragi xamurra! Ikustak.

ROKE Utzi nazak pakian. Ez tiat nai.

KOXXOR ¡Mutil! Ire begidatuak urtu egingo duela, uste al dek?... Beidatueiok

ROKE (*Ziarka begiratuaz*) ¡¡A!!... ta... ¡¡ederra dek!!

KOXXOR Eta... ¿au jan gabe utzi biar al diagu?

ROKE Utzi biarko (*kendu nayian ollua*)

KOXXOR Eta, i... ¿esan ez dek mariatu dirala?

ROKE Bai mutill; ilak ziruitekan (*Xextua kenduaz*)

KOXXOR Zerbait artua gatik, ez dituk konturatuko

ROKE Bai, baña...

KOXXOR Artu zagan ollaskua ta ogi bat eta guazemak sagardotegira

ROKE ¡Mutil!

KOXXOR Beste gañeako guztiya eramango dek (*Ateratzen du ollua eta ematen dizka Roke'ri –ogi bat ere bai-*) To...

ROKE ¡Usai gozua zeukak gero (*Usaika dagon bitartean Koxkor'ek artzen ditu xextotik beste gauza geyago, ayen artian ardo botilla bat eta eskutatzen ditu danak*)

KOXXOR (*Au neretzat, au ere bai, ta ¡zarpa!*) Guazeman

ROKE Guazemak (*Asten da dana jasotzen*)

KOXXOR ¿Danak eramango alditugu?

ROKE Ez, emen utziko dizkiagu; bestela danak jango dizkiagu guk.

KOXXOR Orrekin naikua diagu

ROKE (*On Pepito'ri*) Ar beza, on Pepito: egiteko bat det eta bitartian emen lagako dizkat abek. Beriala etorriko naiz. Pantxoren gauzak dira

ON PEPITO Bai, bai... Utzi emen... utzi emen

ROKE Guazemak gu orain

KOXXOR Nere andriak etzian eman nai sardinaz batentzat?... ¡Obe! Ura ez bezelako “mokadua” jango det... ¡Baleki! (*Juaten dira biyak atzeko eskuitik*)

BEDERATZI'GARREN IRUDIA

On Pepito ta Tomax

ON PEPITO ¡Orain ere utz! ¿Ez ote det gaur ezer arrapatuko? (*Beitatuko du amua eta botako du uretara*) ¡Alperrik da dana! Ta ¿zer esan biar diyot nik, gaur, nere Klotildetxo'ri? (*Botiaz berriz*) ¡¡Utz berriz ere!!... Pastel kremaskuak dute kulpa. Botatzen ditut apastatzaz, eta ur gañian gelditzen zaizkit. (*Tomax eskuiko*)

atzetik) (Sartzen da eta gelditzen da itxasoari begira. On Pepito'k beitatuta botatzen du berriro) ¡Ara! ¡Oraingoan ba det! ¡Arrapatu det! ¡Arrapatu det! ¡Eta aundiya da! Ezin altxa det (Altxatu ta indarki) ¡Itzul egingo dit! (Ojuka) ¡Zu, arrantzale lagundu nazazu! Banekiyen, laguntzallia biarko nubela

TOMAX
ON PEPITO
TOMAX
ON PEPITO
TOMAX
¡Zer da?
Atuna, edo izugarrizko izokiren bat
¡Izokiya kayian?
Eta aundiya!
Ia, bekar (*artuko du kañabela, ariko da tiraka, ta ikusirik trabatua dagoela emango diyo esanaz*) Ar beza, ar beza... eztiyo igaz egingo

ON PEPITO
TOMAX
ON PEPITO
¡Zer da bada?
Arroka
Zaude ixilik, zer izan bear du arroka ¡Ez aldet bada nik nabaitu tinkatekua!

TOMAX
ON PEPITO
¡Bai, e?... Ba eutzi, ia ekartzen duben
Ezin det... ia emendik... alperrik... ya onetara... (*Atzeaka indar aundiyan eta bi eskuakin tiraz*) ¡Badator! ¡Badator! (*Puskatuko zayo tira, ta eroriko da atzeko aldera, lurra buruakin juaz*) ¡¡¡¡Ai!!!!... (*egongo da pixka bat etzanda, ta gero exeriko da lurrian bertan. Tomax'ek lagun egin da*)

TOMAX
ON PEPITO
¡Gizarajua!
¡Au kankarrekua!... ¡Zerbait puskatu zait! (*burua ibilliyaz*) Bai; bai, uste det kolokan dakatela... ¡Ai! ¡Klotildetxo neria! (*altxatzen da neke aundiyaekin, Tomax'ek ere lagunduta*) ¡Ai buruko miña!... ta lepokua... ta bizkarrekua... ta gerrikua... ta... (*Ipurdiya ikutuaz*) Emengu... ¡Ai! bañan burukua... ¡Karrakatu egin biar izan det! Lotu dezadan baezpada ere (*Ateratzen du patrikatik pañuelo aundi bat eta lotzen du buruba*)

TOMAX
ON PEPITO
Tantza eten, eta galdu ditu beuna ta bi amuak
Ekatzu, ekatzu eskura (*artuko ditu bere gauzak utziyaz aztuta Pantxo'renak*) ¡Ai, Pepitotxo gizarajua! ¡Au itxura! Zer esan bear diyot nik Klotilde'txo'ri? Ez daramat arrantzik bañan ni arrek ikustian... arrek bai egingo dubela arrantza!... ¡Ai Klotildetxo biyotzekua! ¡Ai, nere emazte kutuna!

AMARGARREN IRUDIA

Tomax

TOMAX
¡Gizarajua! ¡Ori kankarrekua artu du! Izokiya zalakuan arroka altxa nai zuben... Bera ori izoki ederra... gorri-gorriya... ¡zenbat libra ote da? Onezkero laixter det baporía. (*Itxas aldera begiratzen dubenian, ikusten ditu Pantxo'ren gauzak*) ¡Zer dira abek? (*Sextua irikiyaz*) ¡Oi! ¡Zer dago emen?... Jantzi bustiyak! ¡Norenak dira abek?... ¡Ñor ez badago!... ¡Ba! Portalietaara eramango dizkiat, norbait agertuko dek (*Juaten da eskuiko aurretik xexto ta pardelakin*)

AMAIKAGARREN IRUDIA

Koskor eta Roke (*Biyak eskuiko atzetik*)

KOXXOR (*Patrikan janariya andrientzat daramala*) Ik geyena jan dek
ROKE ¿Nik? Mutil ik jan dizkiok bi anak, bi egoak eta lepoa
KOXXOR Bai ta ik gañeako guztiya
ROKE Ez tek egiya. Iri eman diat eta ik jan dek... zea... zereko zea...
KOXXOR Bai, bai, zea...
ROKE Orrengatik dakak orrelako berriketako gogua
KOXXOR ¿Ederra ziokan! (*Españak igurtziaz*)
ROKE Orain baniak. ¿Zer esan ote du Pantxo'k orrenbeste denboran zai jarrita? (*On Pepito'ren lekura juanaz*) Oi!... Nun da jaun ura?...
¿Juan egin dek!... eta ¿nik utzi dizkaten gauzak?
KOXXOR Aruntzago juango ukan arrantzara
ROKE Ao ba emen... Ikustera niak an aurrera (*Eskuiko aurretik juaten da*)

AMABIGARREN IRUDIA

Koskor bakarrik

KOXXOR (*Aterako du alkandorapetik bildu txiki bat, eta andik, isketak agintzen duen bezela, ollo puzka bat*) ¿Au mauka! Neoni ondo bete, ta oraindik emaztia txurikatzeko aña badet. ¿Etzian sardin zar batentzat eman nai? ¿Obe!... ¿Bestelako leguntasuna daka orain nere eztarriyak! (*Ateriaz*) ¿Nun dira?... Ara... ara... ez dezan esan artzaz astutzen naizenik (*Erakutsiyaz*) Ollo xankua. Nik uste det au asko gustatuko zayola. Au berriz lepua zintzur ta guzti. Gutxiyena pentsatzen dan egunian berriya biarko du. Arrek ateratzen dituben zalaparta ta marruakin karrakatua daka, ta itz egiten dubenian pazi zarra diruri. Ura asten danian (*Andriaren antzera*) ¿Alproja zarra!... Lotsagabe zikiña!... ¿Moskorra!... ¿¡Ui!! ¿Egualdiya ere txartzen da!

(*ERESIA*)

(*Cuple*)

Ezkon gaietan nere andria, beste askoren antzera mingañez legun eta txukuna, gañera zan oso ixilla bañan oraintxe, ¿Kristo neria!, ainbestetxe aldatu da... Nere buruari galdezka nabill lengua bera ote dan.

Ori da nere andria... Orpo zikiñ arlotia asarre dabill, zatar uts ori ikusten naun geyenian; ori bai dala kanpuan uso eta otsoa etxian. Eskola ona ikasiya du kayeko “ikastetxian”... Mordoilkeri ta zatarkeriyak darabilzki mingañian.

Ori da nere andria... Mingaiñ luze berritsua

(IZKETA)

KOXXOR

Etxera nijuan... andria aixkiratzera ¡¡lerorreko ollua!! ¡Edozeñek jaten dik! Gogoatzen naiz bein aur-eginda zeola, “medikuak” agindu ziyola ollo salda artzeko. Ni juan nitzan zuzen-zuzen kayera, atera niyon lagun bati ollar prexko bat eta aragi tartian sartu del eltzian. ¡Alakoxe salda ederra egin zan! Bañan nere andriak, etzuben tanto bat ere artu... ¡Legorreko olluen salda biar omen zuben, ez itxasokuena... ¡Kutiziyak!
(*Roke eskuiko aurretik*)

AMAIRUGARREN IRUDIA

Koxkor eta Roke

ROKE

Edozein juaten dek orain ola Pantxo'ren etxera... Ez jantzirik... ez janik... ta ez ezer...

KOXXOR

¿Zer dek?

ROKE

¿Zer? On Pepito ez detala topatu. Iñork etziak bere aistarrenik ematen.

KOXXOR

¡Txautu aiz! Eta ¿zer egin biar dek orain?

ROKE

Nik etzekiat... Ni ez niak ola, utsik on Juan'en etxera

KOXXOR

¿Utsik?... Ondo betiak gioztik ba barrendik

ROKE

¿Oraindik “broma” ko gogua al daukak?

KOXXOR

¡Roke gizarajua! Kupitzen nauk!; ¡A!... Bazekiat zer egin

ROKE

¿Zer?

KOXXOR

¿Gezurra esaten yayua al aiz?

ROKE

Ez mutil, andriak beriala ezagutzen niok esaten diyotanian

KOXXOR

¿Andriak bai... orduan ez dek “balio”

ROKE

Guazemak on Pepito'ren billa

KOXXOR

¿Zertara?

ROKE

Pantxo'en gauzai zer egin diyon jakitera

KOXXOR

¿Bai aldakik non dan?

ROKE

Etxian onezkero; guazemak bazekiat non bizi dan (*Eskui aldera egiñaz*)

(*On Juan eta andre Kiteri eskuiko atzetik*)

AMAL AUGARREN IRUDIA

Lenguak, on Juan eta andre Kiteri (*Abek biyak eskuitik sartzen dira*)

ON JUAN

Roke, Roke; ¿nun dituzu gaztiak?

ANDRE KITERI

¿Luisita nun da?

ROKE

(¡Ai ama! ¡Arrapatu niok!)

ANDRE KITERI

¿Zer egin dezute gaur arrtsaldian?... ¿Orain nun dira?

ROKE

(*Koxkor'i*) Esan akuyok orain gezurra

KOXXOR

Etziatek ordia neri galdetzen

ANDRE KITERI (*Luisita'ren gana juana eta bera laztanduaz*) ¡Ay nere biotzeko Luisita! (*Kanpotarrak eskalletatik*)

KOXXOR (*Roke'ri*) ¿Ori al da Pantxo?

ROKE Bai

KOXXOR Pantxo ezik, tramana ere badek ori

ANDRE KITERI ¡Zuben gatik damatan eguna!

ON JUAN ¿Zer gertatu zaizute?

MIS Ezer ez; olatu batekin pixka bat busti dala

PANTXO Pixka bat, bai, pixka bat (*ezurretaraño*)

ON JUAN Eta itxura orretan al zuaz etxera?

PANTXO Aspertu gera orren zai, ta orrengatik ginjuazen onela

ON JUAN Guazen lenbailen

PANTXO Guazen Luisita

ANDRE KITERI Zu, ez. Zu etzaude egoki gurekin etortzeko

LUISITA Ama... ¿Onela utziko al degu?

ANDRE KITERI Onela eramango aldegun galde zazu ¿Danen parragarri ikusi nai algaituzu?

LUISITA (*Erregutuz*) ¡Ama!...

ANDRE KITERI Alaba... guazen... (*Juanaz*)

PANTXO Luisita, Luisita... badijua... ¡¡Zorigaiztoko eguna!! (*Kanpotarrak eskuiko aurretik ta atzetik*)

AMASEIGARREN IRUDIA

Pantxo, Koxkor, Roke ta jende pilla

(Bapore txistu luzia. Baporiaren tximiniya agertuko da ta jende pilla eskallerak gora etorriko da. Bestiak eskuitik sartuko dira. Guztiyak artuko dute Pantxo erdiyan)

(*ERESIA*)

PANTXO Uretara erori naiz, soñeko ta guzi
orain emen naukate danen parragarri

SAILLEAN (*Izeka*) ¿Nundik sortu da, orrelako antxeta?
Soña, medarra, ta prakak zintzilika?
Txorik izutzeko, ¡zer nolakua!
Orentzato begi gorri, kentzak soñeko zar ori
Antxeta dirudi, ¡Oi, zein parragarri!
¡Ja, ja, ja, ja, ja, ja!...

PANTXO Orentzaro begi gorri egun gaitza daramakik...
Bañan txalotxo bat... entzungo banuke...
Zorigaiztoko egunaz, aztuko nitzake
(Aztuko nitzake

SAILLEAN (Aztuko ziñake

-Ezkuta zapia jeixten da-

AMAYA